

# ANAITASUNA

255. zenb.

1973.eko maiatzaren 15ekoa

Pelota, 4 - 1.º - Bilbao-5  
Tel. 23 74 49 - Apart. 495

## DONOSTIAKO EUSKAL KULTUR TALDE BAT

Batzuetan, euskal aldizkarietan, E.K.T. izena azaldu da. E.K.T. zer den adierazteko bidaltzen dizuegu gutun\* hau.

Duela lau urte, Donostiako Industri Injenieroen Eskolan, «Euskal Kultura Taldea» egin zen. Gure asmoa: batxileratuan euskal kulturarik erakutsi ez zigutela buruan harturik, karreraren zehar euskarazko klaseak, alfabetatze kanpainak, mintzaldiak eta abar antolatzea. Ikus dezagun joan den ikastaroan egindakoa:

- 1971.eko urrian «Euskal Herriko Historiaren Laburpena» izeneko liburua argitaratu genuen.
- urtero bezalaxe, euskarazko klaseak izan ziren.
- 1972.eko martxoan, alfabetatze kanpaina bat izan zen.
- mintzaldi sail edo ziklo batzuk\* ere eratuak izan ziren:
  - ekonomi sailean, bi mintzaldi:
    - «Economía de Guipúzcoa» (Juan José Rodríguez).
    - «Ipar Euskal Herriko ekonomiaz» (Ramuntxo Kanblong).
  - olerki sailean, bi mintzaldi-errezital:
    - «Euskararen batasuna» (Joseba Intxausti).
    - «Aditzaren batasunaz» (Patxi Altuna).
    - «Euskara teknikoa» (Jose Ramon Etxebarria).
- bi jaialdi egin ziren:
  - «Ipar Euskal Herriko kantarien jaialdia».
  - «Euskal soinugailu zaharrak» (ARGIA taldekoek emana).

— Euskal Unibertsitate baten premia ikusirik, hauxe ere egin genuen: talde batean hogeita bat ikasle elkarturik, geure herriari buruzko lan labur batzuk idatzi. Gero, lantxo hoik\* taldekoen artean eskuz esku pasatu, bakoitzak kritika bat egin zezan bi aldetatik:

- lantxoan erabilitako hitz teknikoan aldetik, ea egokiak diren jakiteko.
- gramatika aldetik.

Horrela, bi helburu lortzen dira: hiztegi tekniko bat sortzea, eta Injenieritzari buruz euskaraz mintzatzeko erraztasun eta ohitura bat erdiestea.\* I haz lau lantxo egin ziren. Hona hemen haien tituluak:

«Berezko erregulatzea» (edo erregulazio automatikoa): orri bat.



«Informatika»: lau orri.

«Fisikaren oinharriak»: bi orri.

«Hidroelektrikolak» (edo hidroelektrik zentralak): hiru orri.

## Donostiako euskal kultur talde bat

— Eta, amaitzeko, goi mailako gipuzkoar ikasleen artean euskal kulturari indar eman nahirik, Euskal Kultura Taldeak SAIAKERA LEHIAKETA bat eratu zuen. Lanak bidaltzeko epea maiatzaren 15ean bukatu zen. Hamar mila pezetako saria. Lanak, hamar folio guttienez, euskaraz, Euskaltzaindiak 1968.ean gomendatutako idazkera arauen barnean. Epai mahaikoak, Joseba Intxausti, Karlos Santamaria eta Ibon Sarasola izn ziren. Saria honela banatu zen:

- lehen saria: «Zenbait mitoren desegitea» (Patxi Urkizu eta Mikel Elorza); 36 orri, 4.000 pezetako saria.

- bigarren saria: «Berezoitasuna» (Andoni Sarriegi Eskisabel); 12 orri, 2.667 pezetako saria.

- bi hirugarren sari: «Palestinako herria okupazioaren aurrez aurre» (Lurdes Soria); 12 orri, 1.667 pezetako saria. «Eboluzioaz saiakera» (Jon Urrujolegi Agirre); 19 orri, 1.667 pezetako saria.

Lan guztiak benetan aipagarriak, bai gaiaren erabiltearen moldeagatik, bai tankeraren aldetik.

E.K.T.

Escuela Ingenieros Industriales

Urdaneta, 7

SAN SEBASTIAN

E. E.

dezagun, daigun  
dizuegu, deutsuegu

zezan, eian  
ziguten, euskuen



Emakume, gizonezko eta umeen jantziak

Oihal, izare eta etxean behar diren  
gainerakoak

Bai emakume eta bai gizonezkoentzako  
jantzi aukeratuenak, azken  
modara eginak

# HURI ZAHARRA

“Casco Viejo”

BILBO

## Baionako etorkizunaz

Martxoaren 15eko ANAITASUNAn «Euskal Herria eta Europa» artikulua irakurturik, ongi iduritu zait, «Le Monde» egunkariak dakartzan berri hauk\* argitaratzea:

Dudarik gabe, datozen hamar urteak premiazoak izanen dira Baionako portuarentzat eta inguruetak herrientzat. Lan postuen egoera hobekitu beharra (Ternoseko\* «Sciaky» fabrika hersteagatik,\* 106 langile lanik gabe aurki daitezke. Angeluko\* «Compagnie Française des Charbons» deritzan fabrika, Senlis-en ezarri du Pariseko gobernuak) eta 1983. urte ondoren Lacq-eko gasaren ekoizpena\* jaitsiko delako problema askatu beharra. Hauk dira, gaur egun, Baionako kezkarik larrienak. Aldiz,\* Baionako alkateak eta bertako ekonomilariek beren argumentu onak aurkezten dizkigute:

- Baiona-Angelu-Miarritze herriak elkaturik, 120.000 bizilagun dituen etxe multzo bat dadukagu, hots,\* maila erdiko herri bat.

- Baiona Euskal Herrirako autobidean dago, eta geroago, Toulouse-tik Baionarainokoa amaituz gero, Aturriko\* eskualdean\* porturik inportanteena izanen da.

Bere aldetik, Baionako Merkatalgo\* Ganbarak, industri gizonak etor daitezten, portu inguruetak lurra erosteko diru kutxa bat ipini nahi luke. Etxe multzoan industri lekuetarako 120 Ha. prest dira, 34 erabilkorrak direlarik.

Gauza segura da, 1983. urtean sufre ekoizpenaren guttiagotzeak irabazien % 20ko beharpen bat ekarriko diola Merkatalgo Ganbarari. Zorionez, urte berean, Bokaleko\* kaia egiteko jaso zuen dirua itzuliko du. Behar bada, gaurko kaiaren hegoaldean beste kai bat eginen da. Zehazkiago, bi kai eginen dira: bata erreka honda rrez bete ez dadin, bestea aldameneko hondartzetara ur gehiegi hel ez dadin.

Orain, aurtengo neguan, karramarro bat erabiliko omen da, portuko sarbideak egokitzeko. Estatuak 10 milioi liberako\* diru laguntza bat eskainia du horretarako.

Gobernuaren eritziz, Aturriko portuarentzat diru laguntza hau aski\* da, 1973. urterako behintzat. Horrengatik, beste proiektuak (arrantza portua, izozkutxak,\* geltoki berria) datorren urtean aztertuko omen dira.

XANTI LAFITTE

dio, deutso  
dizkigute, deuskuez  
zait, jat

**ANAITASUNA Bizkaia**  
**Hamabosterokoa.**

**Zuzendari ordezo:** Imanol Berriatua.

**Idazkari:** Josu Torre.

**Bulegoa:** Pelota, 4-1.º - Bilbao-5.

**Imprimatzaile:** AMADO, Mazarredo, 35 - Bilbao-10.

**Moldatzaile:** RALI, Particular de Costa, 12-14, 3.º - Bilbao-10.

**XX. urtea.**

D.L.: BI-1.753 - 1967.

# Irakasle eta guraso

Aspaldi konturatu ginen, ikastolako lanak loturik daramala eguneroko preparazio sakon bat. Eta ez dela nahiko, urteetan zehar berritze sakon bat egin gabe, pedagogi lan bat aurrera eramatea.

Hezierak berekin dakar, guraso eta irakasleen artean etengabe-ko harremanak atxikitzea eta jendearen sentipena xurgatzea.

Hau dela eta, urtero egiten da programa bat irakasleen artean: hots, zenbait ikasketa antolatzen ditugu ikastaroan barna, eta, horretaz gainera, elkarrekin bideak bilatzen ditugu, geure eguneroko lanak sortzen dizkigun problemak soluzionatzeko.

Aurtengo ikastaroan zehar, gure ikasketa edo bilkuren programa honela dago eraturik Goiherriko eskualdean:

## IRAKASLEAK BEREN ALDETIK

Maila bordinoko haurrak dituzten irakasleak, hamabostean behin biltzen dira. Adin honek dituen arazoak aztertzeke, eta pedagogi eta psikologi aldetik dugun ikasi edo sakondu beharra zuzentzeke; dagoen materiala aztertu eta bereizteke, eta, aurrera begira, eskola molde berriak dituen behar guztietan sakontzeke.

Aurten psikologiazko ikastaldi batzuk antolatu genituen (hauk ere hamabostean behin), haurra bere xehetasun guztietan ezagun ahal izateko.

Euskara, astean bi egunetan. Euskaltzaindiak eratu duen azterketara presentatzeko asmoz.

Herri bakoitzak arduradun bat hautatu ondoren, ordezkari arduradunak astean behin biltzen dira, lan eta klase guztien koordinatze edo lotze bat egiteko.

Hauetatik arduradun nagusia (eskualdeko arduraduna) Donostian biltzen da beste eskualdeetako arduradunekin.

## GURASOEKIN

Goiherriko eskualdea hamabi herri osatzen dute. Herri bakoitzeko gurasoak edo juntako arduradunak biltzen dira, irakasleen aldetik dauden arduradunekin.

Hauen artean «lan sailak» daude eraturik. Guraso nahiz irakasleek elkarrekin osatzen dituzten talde batzuk, honela daude eraturik:

- gurasoen aldizkaria zuzendu eta argitaratzeko (honek eskualdeko arazoak berri ematen du, eta gaiak edo esperientziak agertzen ditu).
- pedagogi taldea.
- erlijio taldea.
- lege taldea.
- irakasleekiko taldea.
- araudi berriaren taldea (guraso eta irakasleen arteko bideak mailatzeko).

Hauetatik aparte, ekonomiaren arazoa: diru iturriak bilatzea, eta honek sortzen dituen zenbait eginkizun arduratzea. Memento honetan, esate baterako, Lizeo berriaz dugu xantxetako ez den buru-haustea. Gaurkoz, ordea, ez dut arazo hori aipatuko. Bai hurrengo batetan.

Amaitzeko, ez dugu beste munduko organizaziorik, hemen Goiherriko eskualde honetan. Baina egiten den apurrak bere fruitua dakar. gauza gutti eta ez behar hainbat izan arren.

Gutziz ximpleki eta gaingiroki emaniko ikuspegia azaldu dut. Ea beste eskualderen batek zerbait osagarri, argigarri (edo maiseagarri) ematen duen. Pozik hartuko diogu.

GOIHERRITARRA

# Ikastolako berriak

● Ikusi berria dugu irakasle-andereñoen aldizkaria, hainbat hilabetetako stop luzearen ondotik. Ez da lehen bezain xukun eta egoki moldaturik azaldu: baina eman du argitara berriro bere burua. Iduri du, xutik ibiltzen ahanztu dela, eta, oinak lurtean, bilintzi-balantza abiatzen denaren antzera abiatu dela. Alabaina, alde on bat da du: gaztea dela; eta gazteak beti ere errazkiago moldatzen ditu bere urratsak. Gure nahiaren baitan balego —edo dagoen heinean— entseiatuko gara bide berrietan zehar ibil dadin laguntzen.

● Udaberrian sartu baino ez gara egin, eta ba dabil jendea udalekuei buruz pentsatzen.

Jakin dugunez, ikastoletako arduradunak, gipuzkoarrak bederen, hara eta hona mugitzen hasirik dira, udalekuak edo koloniak ahal denik eta ongien antolatzeke asmoz, dudarik gabe. Beste zertxobait ere entzun dugu: Beire eta Saturraranez aparte, beste hirugarren etxe baten bila dabilzela. Bejondizuela! Hain apalki hasi zen obra, ba doa nonbait azkartuz eta indartuz.

Lan isila eta neketsua dela ikusien dugu, begiak hertsirik ere; baina lan egerra ere bai.

● Nahiz Santurtze mintzairaz erdalduna izan, ba da han gizon euskaldun jatorrik. Rikardo Ajeo Artazak hilabetero 100 pezeta ematen izan ditu ikastolarentzat. Ikastola sortu zen mementotik, heriotza etorri zaion arte, hutsik egin gabe.

Rikardo hil egin zaigu; eta testamentuan, zuen guztia utzi dio ikastolari: 2.000 pezeta. Horrez gain, ilobari hitz hartu dio, hark orain arte pagatzen zituen 100 pezetak, honek pagatuko dituela haren partez. Ikastolak, ordainez, euskarazko meza bat atera du haren arimaren alde. Goian bego!

● Algortako ikastola berriko obrak hasi berriak ditugu. Diruaren biltzeko ahalak nahiaren bestekoak ez badira ere, saiatu behar dute, 10 milioi pezeta nonbaitetik biltzeko. Hori da, entzun dugunez, obrak kostatuko diren diruaren kopurua.

● Denok dakikegu Gernikako ikastolako arazo larriaren berri. Dagoen anormaltasun hori konpondu guraz, mila sinatura bildu dira, ikastolaren jarraipenaren alde eta anormaltasuna sortu duenaren kontra.

Irakasleen gertakari batzuez zenbait zurrumurru zabaldu dira. Nork zabaltzen ote ditu zurrumurru hauk? Zertarako zabaltzen dituzte? Ikastola hondatzeko? Guk zer egin behar dugu? Jeramonik egin behar ote diegu?

● Ikastolak, tokien handitzearekin eta legearen esigentziekin, bere arazoak ekartzen ditu. Hori dela eta, Lexonan, datorren ikastororako, toki berri bat zabalduko dute. Oraingoan, Lexonatarak eta Erandiotarrak bilduko dira ikastola berrira. Ez da xantxetako gauza, honelako beharretan sartzea.

● Arabako Laudion, bi egunetako berbaldiak antolatu ditu bertako ikastolak. Berbaldi hauk, bereziki gurasoentzat izan dira, «pedagogia liberatzailea» gaitzat harturik.

X. X.

daude, dagoz  
diegu, deutsegu  
diogu, deutsgu  
dio, deutso  
dizkigu, deuskuz  
zaigu, jaku  
zaio, jako

# Irakurleak idazle

## ERITZI OKER BAT ZUZENDU NAHIZ

Zuzendari jauna:

ANAITASUNAREN 252. zenbakian ARMENDARITZek argitaratu zuen «Ez Dok Amairu Deustuan» izeneko aipamenak, zenbait burutapen sorrerazi dit. Hala ere, bai textu hori eta bai textuingurua aski\* adierazgarri direnez gero, diren horretan uzten ditut, «parte interesdun» bezala ari naizela nehork\* esan ez dezan. Bakoitzak bere ondorenak atera bitza.

Bakar bakarrik, eta mesedez eskatuz, eritzi oker bat zuzendu nahi nuke. «Otsoak eta Txanogorritxo» deitzen den kanta horretan, nik ez dut, inondik ere, giltzapeturik isekatu\* nahi izan. Ez isekatu, ez eta aipatu ere. Nahiko errespetagarri direla uste dut, inor eszenario batetik haietaz trufaz\* iharduten hasteko.

Nire kanta horren zentzua beste bat da, eta tiroak beste alde batetik doaz. Hori garbi gera\* bedi. Eman zaion interpretazio horretan, beraz, bai unibertsitari batzuk\* eta bai Armendaritz okertu egin dira. Kanta, agian,\* lehen entzute batean despistagarri gerta liteke; baina, sakonago begiratu gero, haren zentzuaz jabetzea nahiko erraza iruditzen zait. Guk, halabeharrez, gauzak askotan hitzerdika esan behar izaten ditugu... eta nahikoa lanekin gainera. Geure ideologia agertu eta adierazteko ez dadukagu beste zenbaiten «inpunidaderik». Zergatik ote? Ez da, ez, kasualitatez.

Besterik gabe, eskerrak, erantzun hau argitaratzearen. Zure

XABIER LETE

## OMENALDI BAT MEREZI DUTEN ANAIA BI

Zuzendari jauna:

Idazlantto hau zeuen aldizkarian argitara zenezaten gura nuke.

Bizitzan gauza guztiak ez dira guk nahi bezala gertatzen. Baina nik ez dut konprenitzen, nola ezbeharrik gehienak lanean jator dabilzanan artera jausten\* diren, eta, bitartean, lasai bizi direnek lasaiago bizitzeko era duten.

Gaur gizon jator biren ezbeharra agertzera natorkizue. Bata berfolaria eta dantzaria bestea.

Bertsolaria ABEL ENBEITA da. Oso ezaguna euskaldunen artean. Hamaika bertso sakon kantatu duena. Bere herrizaletasuna eta bertsoetarako garra barruraino

sartuta dadukana. Eta orain, edaderik onenean, kantatu ezinik gelditu zaigu, eztarriko mina dela kausa. Ezin izango duela gehiago kantatu esan djo medikuak, eta sendatzerik ez duela.

Dantzaria SABIN EFIGUREN dugu. Hau ere denok ezagutzen duke. Hainbat xapelketa irabazi du: Bizkaikoa, Euskal Herri osokoa, erregelena, eta abar. Dantzari talde askoren irakasle eta buru. Euskal Dantzarien Biltzarrean Bizkaiko buru izana. Eta azken urteotan, gure dantza zaharrak, ziren bezala, sustrai sustraitik ateratzen, jo hara eta jo hona, gelditu gabe dabilana. Eta guzti hori, egun osoan lan egin ondoren. Baina hezurra gastatu egin zaio iztai\* alderdian (artrosia du), eta ezin izango du gehiago dantzarik egin. Horri ere, ez dela osatuko\* esan dio medikuak. Hala eta guztiz ere, irakasten irauten du.

Gizon bi herriaren alde lanean, gure herri kultura, gure izakera, ohiturak... jasotzen atsedetik gabe, eta biak ezbehar batek bidea hitxita.\* Zergatik baina? Ezbeharren bat behar bazuten ere, zergatik ez zitzaion bertso-lariari hankako mina etorri eta dantzariari eztarrikoa?

Horra, geure esker ona zor diegun anaia bi. Omenaldi bat merezi duten anaia bi.

Biekin egon nintzen lehengoan, koinatuak dira izan ere, eta bieie nigarra irteten zitzairen. Egiaz, ezbehar honek bihotz muinean zauritu ditu.

Bitartean, hamaika txikitolari izango da gure tabernetan barreka, eztarri eta hankako minik gabe.

ARANTZA

## OINATITIK ESKARI BAT

Zuzendari jauna:

Oinatiko euskal alfabetatze talde bat gara.

Irakurgaietarako, ANAITASUNA sarritan erabili ohi dugu.

Uste dugu, alfabetatzea ez dela gramatika soilik ikastea. Horregatik, irakurgaiak behinik behin, guk bizi ditugun problemekin zerikusia dutenak nahi ditugu.

Nabari\* dugu, azkenaldi honetan ANAITASUNA mozteldu egin dela, Osa eta abarren artikulua oso urri ikusten baitira.

Gure eskari hau, aldizkari horretako «Irakurleak idazle» sailean argitaratzea nahi genuke.

ALFABETATZEKO TALDE BAT

## OPORRALDIAK

Tren, untzi eta hegazkin  
txartelak

Ezkonberri bidaiak  
Arazo bidaiak  
Xofer gabeko automobil alokatuak

**VIAJES  
ECUADOR**

«BILBOKO BIDAI AGENTZIA»

Arriagako Plazan, 1 — Tel. 242468

... Zuen zerbitzutan

(G. A. T. n.º 68)

## GALERIA DEL LIBRO

Gotzon Zaballa

Liburudenda  
erregalutarako gauzak  
Euskal liburuak  
Paperteria

EUSKAL LIBURU AZOKA

EUSKARAZ EGITEN DA

Ercilla, núm. 35 - Tel. 43 83 99 - B I L B O - 1 1

# Neure lantokitik

## UKRAINIA

Piotr Chelest, Ukrainiako Alderdi Komunistaren zuzendaritzakoa, baztertua izan zen ihazko maiatzean. "Kommunist Oukraïn" aldizkariak haren kontrako salakuntzak zabaltzen ditu, oraintsu argitaraturiko alean. "Piotr Chelestek ez ditu Ukrainiako historiako gertakariak\* komunist ikuspegitik juzgatu".

Nik uste nuen, historiako gertakariak (eta historia-koak ez direnak, hau da, gaurkoak ere) objetiboki, inolako baldintzarik gabe epaitu behar zirela. Baina, dirudenez, ezkerreko eta eskuineko fanatikoentzat egiak ez du balio handirik, "beren egia" ez baldin bada.

Eta Chelesten kontrako beste akusazio honek —"nazio harrokeria" (vanidad nacional, vanité nationale) zuela— zer esan nahi du? Zein da "nazio harrokeria"ren definizioa? Non ez dago nazio harrokeriakik? Eta nor nahi badago nazio harrokeriarik (eta ba\* dago), zergatik kondena Ukrainiako... eta Euskal Herrikoa?

## GURE HIRIAK

Ehun mila bizilagunez gorako bost hiri ditugu gaur Hego Euskal Herrian:

Bilbo ... ..	410.490
Donostia ... ..	165.829
Iruinea ... ..	147.168
Gasteiz ... ..	136.873
Barakaldo ... ..	112.128

Gure ehun mila bizilagunez goitiko hiriok honelakoak izango dirateke\* 1980. urtean:

Bilbo ... ..	557.494
Gasteiz ... ..	250.570
Iruinea ... ..	218.122
Donostia ... ..	200.574
Barakaldo ... ..	150.000

Datu hauk\* Espainiako "Instituto Nacional de Estadística"k zabaldu ditu.

## EUSTAKIO MENDIZABAL

Ostegun\* Santuz, apirilaren 19an, Algortako kaleetan, Eustakio Mendizabal tiroz hil zuen poliziak. Hogeitabi urtetako emazte alarguna eta haur txiki bi (Ekaitz eta Matalas) utzi ditu.

## LOURDESEN

Bazko igandean Lourdesen egon nintzen, eta Irlandatik etorritako peleginazioaren meza entzun nuen. Hiru mila lagun ziratekeen,\* beren ikurrin eta estandanteekin. Gazte eta zahar, hauetarik batzuk aintzinako jantzi koloredunekin. Folklorekeria: meza osoa inglez, eta tutik ere ez gaelikoz.

## GREZIA

1967.eko apirilaren 21ean hartu zuten koronelek Greziako agintaritzza.

Zazpigarren urtebetetzean —beraz, aurtengo apirilaren 21ean—, lehen ministro den Papadopoulos jaunak esan du, Grezia "ez dagoela oraindik demokrazian bizitzeko gertu".

Nik onhartzen dut, Papadopoulos jaunak hori esateko duen eskubidea, hau da, Greziak oraindik ez duela demokrazian bizitzeko gaitasunik. Baina sagur nago, beste greziar batzuk ere egongo direla, gaitasun hori ba duela esaten dutenak, eta hauen eskubidea ere onhartzen dut. Baina ez dut onhartzen eta ez onhartuko, Papadopoulos jaunak bere eritzak praktikara eramateko duen eksklusibismoa.

Honek esan nahi du, ba daudela munduan bi klasetako pertsonak dituzten nazioak: eskubide guztiak dituztenak, eta eskubide urriak dituztenak. Eta lehenbikioek erabakitzen dute zeintzuk diren bigarrenon eskubide eskasak.

## NORENAK DIRA SEMEAK

Norenak dira semeak, gurasoenak ala gizartearenak? Galdera hau hainbat ikastolatan planteatu da, eta eztabaida gogorak sortu dira.

Gurasoek ekarri dituzte semeak mundura. Eta, mundura gizaki berriak ekarri dituztenez, gaurko memento historikoan eta hemen Euskal Herrian haiena da hazteko eta hezteko\* erantzunkizuna. Baina norentzat hazi eta hezi behar dituzte, berentzat ala gizartearentzat? Gurasoen probetxurako ala gizartean bizitzeko gai izan daitezen?

Arazo honetan nahasturik daude Historia, Filosofia, Soziologia, eta bai Teologia ere; eta, beraz, ez da hau erantzun oso bat emateko tokia.

Baina, zerbait esatekotan, hauxe esango nuke: Lehen urteetan, gurasoek hazi eta hezi behar dituzte semeak, gizartean bizitzeko gai izan daitezen. Urte haueetan semeek menpetasuna zor diete. Gero semeek askatasuna lortzen dute, eta menpetasun hura\* errespetu bihurtzen da. Eta maitasuna? Erantzunkizuna, menpetasuna, errespetua aipatu ditugu; eta hau guztiok elkar maitasunean oinharritzen badira, orduan gurasoen eta semeen arteko loturak ezin apurtuzko indar berezi bat lortuko du.

Hementxe egingo nuke puntu; baina fededunontzat gizonaren bizitza ez da gizartean amaitzen. Gure azken muga Jainkoagan dago, eta sineste honek kontzeptu sakonago bat ematen die gure erantzunkizunei.

XABIER GEREÑO

die, deutse  
diete, deutsee

# Gure Munduko Albisteak

## Liburu berriak

### «Kultura proletarioaz», Joxe Azurmendik, JAKINen

Atseginez jaso dugu, apirilaren hasieran JAKIN editorialak bidali digun Azurmendiren obra lodi (1a 300 horrialde) eta mamitsu hau. Ez dugu oraindik, egia aitortuz, astirik asko ukan,\* liburu osoa zehatz-mehatz irakurtzeko; baina gainerik egin diogun begirada aski\* izan da, obraren balioaz konturatzeko.

Egileak, Sobietar Batasunean Urriko Iraultzaren ondotik proletal kulturari buruz egondako eritzi, joera eta eskola ezberdinak estudiatzen ditu bere liburu honetan, maiz,\* askorentzat biziki ezezagunak zitzaizkigun jokabideak erakusteko.

Darabilan gaiagatik, liburu hau ezin egokiago etorri zaigu euskaldunoi une honetan. Gaur egun edonork edonon aipatzen du proletal goaren zerbitzurako kultura, eta nornahik darabilta burjes eta proletal kultura hitzak, batere oinharirik gabe. Hitzok, egia esan, beren eduki\* sémantiko osoa gadu dute aspaldion, askorentzat burjes «nola konbatitu ez dakidan gauza gorrotagarria» eta proletari «haren alde jartzea ongi ikusia dena» besterik ez direlarik. Jose Azurmendik, horretaz, hortik zehar sarriegitan gaizki trataturik dakuskigun\* kultur arazo batzuk dakartzkigu, baina sakonki eta zientziarki ukiturik. Bai andereñoek, bai maisuek eta bai gaur eguneko herri kultur problematikaz arduratzen den edozeinek irakurri beharreko lana, beraz.

Euskarari dagokionez, ba ditu zenbait erdarakada alferreko (titulu bera, gure ustez); baina bera ez dateke\* harrigarri, darabilana orain arte gure artean hain guti jorraturik dagoen arlo bat izaki.\* Euskararen terminologia zehatz bat lortzeko, jadanik\* Axularrek bere hitzaurrean zioenez, alor horietan behin eta berrito saiatu beharra dugu. Egileak, bestalde, hitz berri interesgarri asko ere ba dakartza (eskurapen «logro, conquista», helpide «medio», jendeteria «masa...»), baten bati eman dion esangura orain arteko beste idazleena ez bezalakoa izan arren. Gizateria, gure ustez, egokiagoa da «humanidad» zentzuan «masa» zentzuan baino, bigarren honetarako jendeteria utzirik. Urrats\* bikain bat, dena dela, euskara «standard» baten bila, zinez esanik.

Azalez, diogun bidenabar,\* askoz ere hobeki presentatua agertu zaigu liburu hau aurrekoak baino.

Bibliografiarako: AZURMENDI, Joxe: **Kultura proletarioaz**, JAKIN, Ed. Franciscana Aránzazu, Donostia, 1973.

## Irigoyendar senar emazteek seme bat

Alfonso Irigoyen jaun euskaltzainaren emazteak, Libe Alkorta, bere lehen haurra ukan du aurtengo apirilaren 15ean. Semeto\* honi Eneko izena ipini nahi ukan diote bere gurasoek; baina, Hauzitegian ezezkoa jaso ondoren, Madrileria jotzea erabaki dute. A. Irigoyen euskaltzainak hainbat frogak\* eta dokumentu zahar bilduak ditu (batzuk Menéndez Pidal jaunarenak) Eneko izenaren jatorrian eta aintzinakotasunaren alde, eta haurraren aita den aldetik ez du nahi erabaki oker baten azpian bere arrazoiak gelditu dadin. Egoera berean daude, dazagugunez,\* beste guraso euskaldun asko ere.

Gure zorianak Irigoyendarrei eta Eneko jaio berriari. Ea izen askatasuna noiz etorriko zaigun!

## Nafarroako apaizen euskal kezka

Bai, honela da. Nafarroako euskal eskualdeetako\* apaizei euskal kulturazko formazio bat emateko asmoz, Iruineko Artzapezpikutegiak lau egunetako ikastaro bat eratu ukan\* du Aralarko Jaun Done Mikelen ostatuan.

Ikastaro honen egunak apirilaren 24, 25 eta 30, eta maiatzaren lehena izan dira. Bertan euskaraz arituriko hizlariak hauk izan dira: Joxemiel Barandiaran jauna (Historiaurreko Euskal Herriko sinesteak), Pierre Lafitte kalonjea\* (Pirinio aldeko sineste zaharrak), Jose Mari Satrustegi jauna (Nekazaritzatik industriarako aldetan, gizonaren jokaera) eta Juan Maria Lekuona (Kristautasuna Euskal Herrian XVI-XIX. mendeetan). Haez gainera, erdaraz, D. José Goñi, Víctor Manuel Arbeola, Carlos Abaitua, Iñaki Goikuria eta José María Setién jaun apezpikua azaldu ziren.

Nafarroako apaiz euskaldunek oso ongi erantzun zioten ikastaro honi eta eurrez\* bildu ziren Aralarrera. Nafarrak ezeze, bai eta ipar euskaldun batzuk ere bertan ziren. Pozgarria da, izan, Eliza aspaldion euskal gauzen alde Nafarroan hartzen hasia den ardura beroa. Dena dela, euskal eskualdeko apaizei bakarrik gabe, hobe litzateke Nafarroa osoko apaizentzat ere honelako ikastaro batzuk eratuko balitu, gizalegez horixe ere zor baitigu. Dena den, bide imitagarri bat beste euskal eskualdeetako apaiz eta eliz agintarientzat.

## Albaitari baten oharra

Aurreko ANAITASUNA batetan idatzi genuenez, baserriar asko kexatzen dira abereen nafarreria edo apatxartekoaren kontrako xertoa\* dela eta ez dela, beronek behiei xahalgaltzeak eragiten dizkiela pentsatuz.

Algortako albaitari\* euskaldun jator batek, ordea, eskutitz begiko\* eta zintzo bat bidali digu, honetaz informazio zehatzago bat emanez. Dirudienez, ez da apatxarteko edo glossopeda delakoaren kontrako xertoa behiei umegaltzeak eragiten dizkiena, baizik eta gaixo horrekin batera —eta oraingo oso gaizki kontrolaturik— dagoen bruzelosi izeneko gaixo zatarra.



Ba omen dira, gainera, xahalgaltzeak obratzen dituzten beste kausa batzuk, esate baterako, janari ezegokiak. Algortako jaun honek dioskunez, apatxartekoaren kontrako xertoek dakartzaten ondorio segur bakarrak —beste edozein xertok bezalaxe— sukarra, handitza eta esne gutiagotzea izaten da, baina ez luzaro. Azkenez, ba dio, xertoak baserriarrei mesede handiagoak dakartzkiela kalteak baino, ondorio hau gorabehera.\*

Guk geuk, bere eskutitzagatik eskerrak ematen dizkiogularik, horixe ezartzen ditugu horren azalpenak, horretan guk baino gehiago dakien batenak baitira.

## Literatur Sariak

Arlo honetan interesaturik daudenei argitasun gehiagoren bila antolatzaileengana zuzenik jotzeko gomendaturik, hona hemen, laburki bederen,\* guregana heldu diren literatur sari biren oinharriak:

### USURBE nobela laburraren lehen sariketa

1. Edozein euskaldunek har dezake parte.
2. Saria 25.000 pezetakoa izanen da, bakarra eta bana ezina. Emateke\* gelditu daiteke, ordea.
3. Euskara eta orthographia, Euskaltzaindiak Arantzazun eta geroago gomendatua.
4. Gaia libre da, baina lanak gutienez 15 eta gehienez 30 horrialde ukanen ditu, DIN-A4, eta bi lerrotatik bat idatzirik.
5. Lanak (hiru kopiatan) hona bidali behar dira ekainaren\* 1era-ko: JAKINTZA ASTEA, apartado 13, BEASAIN.
6. Elkartekoek beren gain hartzen dute lan sarituaren argitaratzea.

## GOIZALDI dantzari taldearen txapelketa

Donostiako Herri dantza taldearen Zilarrezko Etxaiek ospatzen, eta EUSKAL DANTZA gaitzat harturik, ttiki, gazte eta nagusientzako sariketa bat eratzen da, nor bere mailan.

Ttikiak 14 urtetatik beherakoak dira, gaztettoak 14-19 urte artekoak eta nagusiak 18tik gorakoak.

Idazlanen luzera: Ttikientzat: gutienik 3 horrialde.

Gaztettoentzat: gutienik 6 horrialde.

Nagusientzat: gutienik 12 horrialde.

Ttikiak eta gaztettoak beren lanak eskuz idatzirik bidal ditzakete, eta nagusiek makinaz bi lerrotatik bat idatzirik. Guztiek, ordea, lanaren titulua azalean ezarrita, sobre baten barrenean egilearen izen-deiturak jarriko dituzte, bai eta bizilekua ere.

Lanok, hiru kopiatan, 1973.eko uztailaren\* 31 baino lehen «Goizaldi» Conservatorio Municipal de Música, Víctor Pradera 39, Donostiara igorriko\* dira, azalean «Literatur sariketarako» ezarrita.

Sariak euskaraz eta gaztelaniaz berdina izanen dira:

Nagusientzat: 1. saria 10.000 pezeta eta oroigailua  
2. saria 5.000 pezeta  
3. saria 2.500 pezeta

Gaztettoentzat: 1. saria 5.000 pezeta  
2. saria 3.000 pezeta  
3. saria 2.000 pezeta

Ttikientzat: 1. saria 2.000 pezeta  
2. saria 3.000 pezeta  
3. saria 500 pezeta

Sariok ezin daitezke erdibana; baina taxuzko lanik agertuko ez balitz, emateke\* geldi daitezke.

## Tolosako Euskal Kultur Hamabostaldia

Gipuzkoako herri jator honetako kultur aste bien programma garaiz etorri ez arren, hona hemen maiatzaren 15etik aurrerantzean bederen,\* ospatuko direnak.

Maiatzaren 15ean. Asteartea:\* Arratsaldeko 7,15 eta gaueko 10,30etan: **Navarra, sus cuatro estaciones** filmea Leidor zineman.

Maiatzaren 16an. Asteazkena: Arratseko 8,30etan, Aurrezki Kutxa Municipalaren aretoan,\* Xabier Unzurrunzaga arkitekto jaunaren hitzaldia: **Hirigintza\* Gipuzkoan** delako gaiaz.

Maiatzaren 17an. Osteguna: Arratseko 8etan, Igarondo aretoan, Nestor Basterretxearen zuzendaritzapean, **Euskal artistak gure artean** izeneko diapositiba eta magnetophon erakusketa.

Maiatzaren 18an. Ostiralea: Arratsaldeko 8,30etan, Aurrezki Kutxa Municipalaren aretoan, Xabier Kintanaren hitzaldia, **Euskararen batasuna Bizkaitik begiraturik** delako gaiaz.

Maiatzaren 19an. Larunbata: Gaueko 9,30etan, Urdiña Txiki-ren Biltokian, I. Tolosa Sariaren banaketa.

Maiatzaren 20an. Igandea: Goizean txistularien goizkalejira eta Euskal Herri Meza (11etan Santa Mariako elizan).

Arratsaldean: 2,30etan **Zikiro jatea** Zumardi Txikian. 4etan, leku berean, **Mutil dantza**, eta 5,30etan, zezen plazan, dantzari jaialdia, beronen erdian **Haurren literatura sariak** banatuz. Ondoan, kalejira bat egiten da,

## Euskaraz idazten ikas dezagun!!

Apirilaren 30eko ANAITASUNAn, arrazoi osoaz, gure idazkide Natxik, euskaldun batzuek euskaraz idaztean duten zabarkeria salatzen zuen. Hark aipatzen zituenak, gehienbat, herriko jende arruntak\* egindako eskribuak ziren. Zoritxarrez, ez dira ez hor gelditzen gure hezkak. Egia da holakoak txarto idaztea beti gaizki egonen dela, eskolan bere hizkuntzaz idazten irakatsi ez dioten herri batek, horrenbeste jakiteko obligaziorik eduki ez arren, idazteko orduan gutienez, idazten duena «nola» idatzi behar duen ikasi edo eta laguntasuna eskatu beharko lukeelako. Baina, gehiago edo gutiago, herriko jende xehea, azken batez, barkakizun da (alfabetatze kanpaina aurrera joan heinean,\* ez dira horenbeste izanen, horregatik).

Inola ere barkagarri ez direnak, ene eritziz, duten kargu bereziagatik euskaraz «ondo baino hobeto» idazten jakitera obligaturik dauden batzuen okerrak dira, halafede. Hauk\* bai direla arazo larriak! Nola irakats diezaiekete besteei beraiek ez dakitena? Eta honetaz, zenbat ikastolatan\* ez dugu «bezte, ezan, idatsi, ahu, euzkera» e. a. ikusi? Noiz arte segi gaitezke honela, ordea?

Ez da tikiagoa, berriz, zenbait kultur eta arte taldek beren txarretan maiz\* erakusten dizkiguten idazkera bitxiak: **talde herrikoia,**

**herriko dantzak,** e.a. Nabari nabariro\* dago hor, euskara askorik ez dakitela eta erdaratik itzultzen (gaizki itzultzen, ordea) saiatzen direla. Zertarako aipa, kasu batez, Bilbon euskararen alde ari den erakunde\* baten izen xelebrea? Nola sinets dezakegu euskaltzaleak direla beren buruari horixe esaten ere ez dakitenak?

Euskaraz **talde herrikoia** (eta **herrikoia musika** ez dezagun deus\* esan, berau **eder neska** bezalako astakeria baita) gaizki dago. «Grupo popular» esateko, **herri taldea** edo **talde herritarra, herritar taldea** erabili behar baita. **Herrikoia** «Herria maitatzen duena» da, eta ez «Herriak maitatzen duena». Baten batek ez badaki ere, «euskera popular» ez da **euskara herrikoia** (euskarak herria nekez maita baitezake!) **herri euskara** edo eta **herriko euskara** baizik.

Nahi duguna esateko, maiz borondate hutsa ez da aski\* izaten, estudioak ere behar baitira; eta herri xeheari gaur egun oraino ezin eska diezaiokeguna, idazleei, andereñoiei eta maisuei gutienez, eskatu ez, baina exijitu behar diegu: euskaraz behar den seriotasunaz ikas dezatela.



## Euskal antzerkia Deustuko Unibertsitatean

Maiatzaren 19an, larunbatez,\* Donostiako **Xaribari** teatro talde berriak, Pilar Enciso eta Lauro Olmoren **Batzar Nagusia** deritzon obra presentatuko du Deustuko Unibertsitatean.

Obra honek, animalia symbologia baten bitartez, injustizi giro bat agertzen digu, eta denontzat, haurrentzat ere bai, oso egokia dateke.\*

Unibertsitateko Paranimphoan izanen da, hasiera arratsaldeko 7,30etan ematen zaiolarik. Ekintza hau Euskal Kultur Mintegiari zor diogu.

## Iparraldetiko oihartzunak

### ZABAL: euskal elkartasun eta aldizkari berri bat

Apirilaren 25ean Baionako Euskal Museoan bilera bat egin zen, euskal kulturaren aldeko elkartasun berri baten presentazio publiko egiteko, era berean beronen aldizkariarena eginez.

Bertara joateko garaiz egin ziguten gonbita gorabehera,\* ez guenen, zoritxarrez, haratzeko erarik ukan; baina bihotzez eskertzen diegu beren jentiltasuna

Elkartasun honek ZABAL izena darama, eta bere asmoak bi hila-beterik behin, izen berberaz, argitaratuko duen aldizkariaren bidez adieraziko ditu. ZABAL aldizkaria ipar Euskal Herriko euskararen oin-harrituz, batasunaren alde agertuko da, eta ideietan izena bezalaxe izanen omen da: zabal.

Gure Bilboko zoko honetatik bihoazkie ZABALeko gure anaiei gure goresmenak.

ARMENDARITZ

bihoazkie, **joan bekioez**  
daude, **dagoz**  
dezagun, **daigun**  
dezake, **daike**  
dezakegu, **daikegu**  
dezatela, **daiela**  
diegu, **deutsegu**  
diezaiekete, **deiskioee**  
diezaiokegu, **deiskioegu**  
digu, **deusku**  
dio, **deutso**  
diogu, **deutsagu**

diote, **deutsoe**  
ditzakete, **daikeez**  
dizkie, **deutsez**  
dizkigute, **deuskuez**  
dizkiogu, **deutsaguz**  
zaigu, **jaku**  
zaio, **jako**  
ziguten, **euskuen**  
zioen, **inoan**, esaten zuen  
zioten, **eutsoen**  
zitzaizkigun, **jakuzan**

# Connolly-ren oroimenez

Daitekeena da, askok izen hau orain lehen aldiz entzutea; baina, hala ere, gizon honek Historian merezi ukan\* duen lekū berezia hemen aipatzea komenigarria iruditzen zaigu.

Maiz\* esaten denez, Leninek bere teoriarik nazional eta sozial arazoak elkartu egin zituen. Gai hau biribiltzeko, ordea, zerbait falta zaigu: puntu batzuetan behintzat, Connolly aurretik ibili zitzaiola esatea. Hori dela eta, honetaz zertxobait aipatzeari ongi deritzogu, eta, argibide gisa,\* haren ideiak agertu nahi dizkizuegu.

Connollyk, sasoi hartarako, oso pentsamolde arraroa zedukan. Noski, pentsakera hori, joan den mendearen bukaerako Irlanda hartan ezarri beharrean gaude. Kontuan eduki, herrialde hau Ingalaterraren azpian zegoela. XIX. mende osoan, arrakasta\* haundirik gabe ordea, nazional askatasunerako mugimendu batzuk izan ziren. Marxen eritzi aldaketā mugimendu hauetan nabari\* dezakegu. Hasieran, irlandar langileriari zera ziotson: Ingalaterrakoekin elkartzea, iraultzā batera egin zezaten eskatuz. Gero, inolako mugarik gabe, irlandar nazional askatasunerako mugimenduari lagunduz, hasierako eritzia aldatu zuen.

Connolly, gaztetandik abertzalea izan zen. Aberriaz uste hau zuen: «Ingalaterrak Irlandan eginiko zapalketa latzaren ondoan, egungo\* egoera ikusirik, berak bultzada iraultzaile batez bakarrik astin\* daiteke».

1889. urtean Connolly alderdi sozialistan sartzen zen, eta 1896.eko maiatzean, Irlandako errepublikar alderdi sozialista sortu zuen. Beti abertzale agertu zen; baina abertzaletasunaz batera, barnean, klase berdintasuna zerraman.

Egiazko abertzaletasunak haxe eskatzen du, zioen Connollyk: «Gizartearen atseginez batera, gizon bakoitzaren zoriona. Munduko gosea eta, zapalduak zokoratuz, bakar batzuk (zapaltzaileak) ongi bizi izatea deuseztatu\* behar ditu». Langileriaren helburutzat, berriz, beste hau zedukan: «Abertzaletasunari azken helburu ospetsuago hori ematea».

Honekin Connolly abertzaletasun iraultzailea zehaztu zuen. Ez zen hemen gelditu, ordea; politikazko askatasuna ez zela nahikoa zioen. Aberriaren ondasunak Herriaren eskuetan gelditzen ez baziren, atzerritar kapitalaren pean galdituko zirela adierazi zien bere aberkideei, honela berriro zapalduz geratuz. Connolly ekonomiazko inperialismoaren aurka zihoan, ez politikaren kontra bakarrik. Honi buruz haxe zioen: «Errepublikan sozialistaren sustraiak sendotzen ez baditugu —nahiz eta, ingeles armada\* hemendik jaurtikiz, aberriaren ikurrina Dubliar jarr— gure indarrak alferrekoak izanen dira. Ingalaterrako kapitalistek, merkatariek, bankuek eta abarrek diruaren botereaz zapalduko gaituzte. Zapalketa hau, ezberdina izan arren, gure asabena\* baino motelagoa ez da izango».

Langile klaseak Irlanda askatuko zuela zeharo sine-tsita\* zegoen bera, burjes ttikiak Ingalaterrakoekin gehi-

egi loturik zeudelako. Horregatik, ekonomi loturetatik askatzea zail zitzaien. Nazional askatasunerako burrukaren jarraitzaile jatorra, hori dela eta, langileria agertzen zen.

Connollyren abertzaletasunak ez zituen nazioarteko harremanak ukatzen. 1916. urte aurretik Estatu Batuetan egon zen, eta bertan «Munduko industri langileen sindikatua»ren erataileetariko bat bezala agertu zitzai-gun. 1913.ean langilez osaturiko gudutaldeak sortu zituen; berak sindikatuak burjesiaren eta kapitalisten indarkeriatik zaintzeko jarriak ziren: langileriaren zerbitzuko armada bat.

Lehen Mundu Gerra gertatzean, irlandar langileriari eskabide bat egin zion: gerra deuseztatzeko. Honela arrazontzen zuen: «Eskubideak eskatuz eta zor zaiona lortzearen, Herri baten burruka harmatua egin beharrezkoa dugu, askatasun bila. Era berean, sozial maila zapaldu baten burruka, zapaltzaileen aurka, askatasun ekonomiko eta politikaren bila doana. Biok derrigorrezkoak ditugu, gizonak bagara behintzat. Baina, batzuen ekonomi eta politik interesagatik egiten den nazioarteko burruka bat txartzat dadukagu».

Leninek, ezaguna dugun esaera («inperialisten gudua, herri barrukoa bihur\*») esan aurretik, Connollyk haxe esana zuen: «Gerra honen seinaleak matxinadarena\* izan beharko zukeen; lehen tiro eta hilketek, sozial iraultzarenak».

Irlandako sozialist mugimeridua, erruso eta serbioekin batera, honela definitu zuen Lehen Mundu Gerra: «Kapitalisten aurrerabiderako gudua».

Herria harmetan altxatzea, herria askatzeko bide egokiena zela ikusi zuen. Langileriak bakarrik ezin zuela burrukatu ikusirik, ikurrin bakar baten azpian bildu nahi ukan\* zituen inperialisten aurkako indar guztiak: nazional fronte baten sustraien bila abiatu zitzaigun. Fronte horretan haxe sartuko ziren: «Atzerritar zapalketaren aurka burrukatzeko prest zeuden klase guztiak». Fronte horren garaienak gobernu abertzale iraultzaile bat zekarkeen.

1916.ean matxinada gertu zedukan, baina, SINN FEIN eskuindar taldeak azken orduan atzera jo zuelako, iraultza lur jota gelditu zen, eta Connolly hil egin zuten. Irlandar iraultzaileen porrota, hutsegitea, goizegi altxatu zirelako etorri zitzaien. Leninek, ordea, ez zuen Connolly epaitu nahi ukan, Marxek Parisko «communard»ak epaitu ez zituen bezalaxe.

ARATZ

dizkizuegu, deusueguz	zihoan, joian, joaten zen
gaude, gagoz	zioen, inoan, esaten zuen
zaigu, jaku	zion, eutson
zaio, jako	ziotson (ziotsan), inotson, esaten
zedukan, eukan, zeukan	zion
zeraman, eroian, eramaten zuen	zitzaien, jaken
zeuden, egozen	zitzaigun, jakun
zezaten, eien	zitzaion, jakon
zien, eutsen	



# TXINATARREN MIRARIA

Txinatarrak modan daude azken bolada\* honetan. Egunean\* baino egunean sor\* eta lorrage\* eginik uzten gaituzte, politika bidean ematen ari diren urrats\* ameskaitzak direla eta: Nixonen itxulia,\* UNOn sartzea, Espainiarekiko harremanak, eta abar.

Baina txinatarren mugaz barruko bizitzá interesgarri bezain ezezagun zaigula aitortu beharrean gaude. Zuzen zebilen Michaux, honako hau bota zuenean: «Txinatar herriak hobekien ezagutzen duen artea, iskintxo\* egi-tearena da».

Egia esan, aski\* lan zaila da Txinako bizimoduaz datu zehatzak eskuratu ahal izatea: ofizialki ezer gutti argitaratzen delako, batetik; eta noizbehinka bertaratu diren bisitalarien albiste gehienak axaleko\* eta kontraesankor\* direlako, bestetik.

Estatistika gabeziaren hutsune hau, egunerokoez eta irriak diotenaz betetzea beste biderik ez dugu. Baina nork jakin zehatz-mehatz, banbuzko hesiaren atzekaldean zer gertatzen den?

Zenbait herrialdetako ekonomiaz ihardukitzean,\* maiz\* erabili izan da «mirari» hitza. Txinakoari buruz mintzatean ere, zilegi\* bekigu «txinatar mirari» esamoldeaz\* baliatzea.

Jan Deleyne, frantses ekonomilari eta kazetariari\* bagagozkio, gaurregun txinatar ekonomia, oro\* har, erdi maila itxuroso\* batetan aurkitzen da. Kondairazko atzerapenean, lurraren berezko pobretasunean eta instalapenen\* erdipurdizkoan daude egoera honen sustraiak. Errentaren ugaltze hutsean ez\* baina, beste zerbaitetan datza\* txinatarren «miraria»: urte guttiren buruan ekonomia bere eskuko bihurtzean, hain zuzen.

Azken hamabost urte honetan, Txinako «per capita» errentak irabazi handiegirik egin ez duelako, teknika eremuan\* egin duen aurrerakada guttieste,\* eta bere burua gobernatzeko lortu duen ahalmenaz ez jabetzea,\* ezin barkatzeko litzateke.

Gaurgero,\* elektronika eta informatika bezalako sailatan ekiporik aurreratuenak eratzeko moduan daude txinatarrak. Eta maila honetara heltzeko, bi ahalegin handi egin behar ukan\* dituzte: teknikalari arrotzek alde egitean utzi zuten zuloa bertakoez bete eta jendearen kontsumikizunak behar beharrezkoenentara mugatu.

Hamar urtez herrialde sozialisten gerizpean egon ondoren, dena bertakoez aurrera eraman beharrean aurkitu ziren.

Txinatarrek bakarrean burutu\* duten ahalegin izugarri hau ez ote da, gero, burugogorkeria hutsa besterik? —galde lezake norbaitek. Geroaren azterketan sartzeke,\* nik neuk, setakeria\* antzua\* ez baina, bide berriak bilatu nahia areago\* dela esango nuke.

Elustondok ZERUKO ARGIAN esan digunez, «ekonomia baten etorkizuna jakintzaren indartzean eta kualitatezko gauzen indartzean gehiago datza, kapitalaren ugaritzean baino». Ba dakite honen berri txinatarrek.

Sobietar Batasuna «USAREN muga berri» bihurtu den ordu honetan, txinatarren ahalegin itzel\* honek ba du

profetismo kutsurik. Hala ere, ba dira, «ideologiaz-handiko lantegiak» bihar edo etzi Txinako murrailaz barrutik ere sortuko diren eritzikoak...

X. MENDIGUREN

bekigu, izan bedi guri  
daude, dagoz  
digu, deusku  
diote, dinoe

gaude, gagoz  
lezake, leike  
zaigu, jaku

## Mendigoizale baten gogoetak

Igandea etorri zaigu. Goizetik jaiki gara ohetik, eta mendira abiatu gara.

Trapagara\* heldu ondoren, bertako funikularra hartzen dugu, eta Larrainetara igotzen gara. Handik bai ikuskizuna!

Eskuin aldean, Bilbo, ketan, ixilik, Bilbotik Santurtzeraino, Nerbion hibaiazen ezker alde osoa egertzen zaigu, fabrikaz beterik. Han, urrunean, etxeetako teilatuetan zehar, gruba baten punta agertzen da. Gero beste bat eta beste bat, zigoina\* buruak bailiren\*.

Aurrez aurre Algorta. Ederra. Teilatu gorri gorritz koloretatua. Pixka bat gure ezkerretarantz, Serantes mendia: alde batetik Campsa, Iberduero, Butano, eta bestetik Somorrostroko iragaztegia\* dituen mendi hura\*.

Gure azpian Trapaga. Eta Barakaldo ere bai. Lotan daudela ematen dute biok. Bihar-etziko sozial aldaketa ausnartzen nonbait. Hortxe daude biok, pentsatzen. Beude, ba\*!

Atzean, urruneko mendiak baino hurbilago\*, Arboleada deritzan herrixka.

Goazen aurrera!

Zeruan, Bilbo aldetik, eguzkia gorantz doa, Larrainetako etxe ttipi eta bereziak bistatik galtzen ditugun birtartean.

Orain, bai eskuinetara eta bai ezkerretara, Bizkaiko lehen meatzak\* ikus daitezke. Abandonaturik. Hilik.

Aurrean Arboleada ikusten da. Enparantza\* bat, etxe ttipi eta bereziez inguraturik. Erdian musika kiosko bat. Hau ere berezia da. Halako zerbait daduka.

Hemen eta inguruko herrietan, Bizkaiko lehen sozialistak sortu ziren. Gure aitak behin baino gehiagotan azaldu izan zigunaz oroitzen gara.

Berak esaten zuenez, 1848.ean egin zen lehen Labe Handia Bizkaian. Boluetan, hain zuzen. Hala ere, ezin esan daiteke industri iraultzá\* hasia zegoenik une hartan.

Industri iraultza XIX. mendearen azken laurdenean agertu zen. Denbora hartan, kondizio berezi batzuk aurki daitezke. Guk hemen zenbait besterik ez ditugu aipatu.

# Peru Abarka-ren alienazioa

Euskal-Herrian inoiz gauza ez bururik ez zangorik gabekorik inork ikusi baldin badu, horixe, euskarak bizirik diraeino\* eta mila urte geroago ere, **Eztabaida** izanen da (honela, inisial handiarekin). Eta **Eztabaidak**, behar-bada, ez du bukaerarik ukanen, fin gaizto bat egiten baldin ez badu, behintzat, Errenteriako bisita batekin.

Mitxelena eta Haranburu-Altuna ezagutzen ditut biak, eta burua eginen\* nuke, haien artean ez dela egon, eta ez dagoela oraindik ere, **Eztabaida** baino lehenagoko gorrorik. Beraz, **Eztabaidaren** funtsa\* ez datza\* arrazoi pertsonaletan; bere giltza-harriak sakonago ditu, barrenago, ezkutuanago\*, endelegu\*-langitearen\* sustraietan, motibazio intelektualetan. Zein diren eta zein ez diren, konprentzio normal batetatik kanpoan dago, adimendu ohituaren harandikoan.

Batarekin eta bestearekin mintzatu naiz (eskribuz nahiz hitzez), eta ez didate ezer argitu. Ondorio bezala, honetara etorria naiz, hau konkludi ahal ukan\* dut (honela erranen\* zuen hugonoteak\*: **konkluditu**), euskaldun guztiak zororik gaudela (izan bedi ene bozgarria,\* niri familiatik datorkidala).

Beina **Eztabaidan** punturik zelebreena, Peru Abarka-ren klase soziala izan da. Zeren, sozietatean, Jaiak\* erremediatzen baldin ez badu, klase sozialak izan dira, dira eta izanen dira (batez ere, iragartzen\* zaigun etorkizunean). Gaur egunean, bat edo beste izanen gara: burjes ala proletario. Edozein kristauren begien bistaren aurrean dagoen gauza da hau; hemendik ez dago bihurrearik, eta bestela baldin badiost inork, ba dakit enganatu nahi nauela, eta beste gabe goardian jarriko naiz, ez nazan ezpatarekin kolpa. «Gure eguneroko ogia» eskatu behar dugunok klase batekoak gara, eta horren beharrik ez dutenak besteakoak; nik orain enplegu bat dadukat, eta kasualitate bategatik edo ene erruagatik handik despatxatzen banaute, nola pagatuko dut etsetoa\* eta kotxettoa? Gure fabrikak malkarrota egiten baldin badu, ene ugazabaren umeek ez dute goserik sufrituko, ez.

Ezeri edo inori burjes dela baldin badiozu, ba dirudi munduko bekaturik handiena kometitu duzula. Hala ere, zu proletario zarela baldin badiozu, akabo!, berehala hartuko dizkizute kontuan ihazko eguberrietan jan zenituen langostino konjelatuak edo Arenillas-en hartu dituzun itsas-bainu dominikalak. Baina zuk doble edo lauu doble pagatu dituzu langostino hoik\* eta bainu hoik zeure bekokiko izerdiaz.

Hauk\* errealitateak dira. Burjesek ez dute nahi klase sozialen izenik ere, eta proletariook ez ditugu nahi klase sozialak berak.

Errenteriakoa dena errenteriar erraten diotenean, alegratu egiten da, eta berdin Alegiakoa alegiar deitzen diotenean. Baina burjesari burjes deitzen baldin badiozu, ba duzu aurrean etsai\* bat. Zergatik hau? Etsaia delako alde aurretik, edo?

Moguel eibartarra, zein klase sozialetakoa izan zen? Azter ditzagun pizka batean egitekoak. Erreboluzio frantzesak\* lehertu\* baino lehen, hiru klase sozial agintari zegoen, eta obedient bat. Agintariak hiru estatuak ziren,

eta obedienta komuna. Hala irakur ahal dezakegu Axular-en eta Oihenarte-ren eskribuetan, besterik ez badago ere. Erreboluzio frantzesean hiru estatuetatik bat atera zen garaile, hirugarren estatua, burjesia. Eta beste biak asimilatu zituen. Hau mundu guztiak ahaztu nahi duen gauza da. Orduan gertatu zen ezklabotzatik etorritako klase sozialaren aurrean aurkez aurk, populuaren aurrean, kumunaren aurrean, proletarioon aurrean.

Orain kontua da: Moguel-en denboretan zer organizazio sozialek ordenatzen zituen Bizkai-Gipuzkoak? Zaharrak ala berriak? Berdin digu. Leheneko kasuan, bigarren estatuko obra bat da Peru Abarka, Gero eta Leizarragaren tradukzioak bezala-bezalaxe. Bigarrenean, burjes huts.

Hainbeste urtetan argitaratu gabe egon baldin bazen, hori beste kontu bat da. Gehiagotan egon zen Etxeberri Sarakoaren obra; eta inork ez du dudarik egin behar, hirugarren estatuko obra bat dela.

Honek guzti honek zentzu-gabekeriarik eroena\* dirudi, eta hala iruditzen zait niri ere. Baina, beti bezala, pentsamenduaren ostean sentimendua dago, eta asunto\* guztiak tristuraz betatzen nau. Zeren\*, Mitxelena jaun, adiskide eta hainbeste gauzatan maisutzat aitortu dudari (ba daki berak gezurrik ez diodala), beraren lan egiteko kapazitatea gutitzen baldin bazaio, errate baterako, eritasun\* psikopatiko bat kutsatzen baldin bazaio (inor ez dago libre, eta are\* ni gutiago), zer etorkizunek igurikitzen\* dio, beraren familiaren ahaleginek erremediorren bat bilatzen ez badiote (kapazitate bati beste batek bilatutako ordaina), ezpada Charenton-sur-Saonako etse\* baten miserabletasunak?

Ai ene, Santa-Agedako, Zaldibar-eko eta Bermeo-ko talaiaiko\* gaineko etseen miserabletasuna! Nit hainbestetan eta beti hain hurbildik\* ezagutuak! Neure odolaren adolaren gainean ezagutuak!

Haranburu-Altuna batek, eta ez inoiz beste ezein\* burjes-kumek ezagutua!

Jean-Jacques Rousseau! Moguel! Salbaia\* ona!

Basa-herritar zintzoa!

Peru Abarka eta Garoa-ko Joanes-en alienazioa!

Ene! Ene!

GABRIEL ARESTI

dezakegu, **daikegu**  
didate, **deuste**  
digu, **deusku**  
dio, **deutso**  
diost, **dinost**, esaten dit  
diot, **dinot**  
diote, **deutsoe**  
dionu, **dinozu**; **deutsazu**

ditzagun, **daiguzan**  
dizkizute, **deutsuez**  
gaude, **gagoz**  
nazan, **naian**  
zaigu, **jaku**  
zaio, **jako**  
zenituen, **zenduzan**

# Erbinudea eta Xontonxuria (9)

Maiatzeko igande goiz batetan, Eneko eta osaba Martin menditik ebiltzala, bide ertzeko sasi artetik arratoi haundi bat irten eta bidetik aurrera abiatu zan korrika. Une bat geroago, leku beretik piztatto gorri luzexka bat agertu eta lau saltotan arratoitzarraren gainera igon zan, beronekin izugarritzko burruka ba hasiz. Ikusle biak adi egon jakezan, eta ondo baino hobeto ikusi ahal izan eben zelan piztattoak hiltzen eban arratoia, bai eta haren ikarazko txilikoak entzun ere. Arratoia tripaz gora gelditu zan, burua odolez gorriturik; eta hiltzaileak, hain animalia ttikiagan nekez igarri eitekean indar batez, tiraka eroan<sup>\*</sup> eban handik, sasi artean patxadaz jan ahal izateko.

Enekok ha<sup>\*</sup> guztia ametsetan legez<sup>\*</sup> ekusan. Halakorik ere! Nork pentsa eikean, holako burruka bat ikusi beharko ebanik igande hartan? Piztia biak sasietan desagertu<sup>\*</sup> zirenean, osabari zertzuk ziren itaundu<sup>\*</sup> eutson berehalaxe.

—Hara! Bata zeuk ikusi dozu: arratoi bat.

—Bai, hori ba dazagut;<sup>\*</sup> baina nik bestearen izena jakin nahi neban. Zer zan?

—Ogigaztai bat, edo, beste euskaldun askok deitzen dabenez, erbinude bat.

—Bai izen arraroa daukala, osaba. Ogigaztai izen horrekin edozeinek pentsatuko leuke jatekoa dala.

—Ba, ikusi dozunez, ez da, ez, horrela. Berak bai jaten dituala besteak, berriz.

—Arratoiak bakarrik jaten ditu?

—Erbinudeak arratoiak eta saguak ditu bere janaririk maiteenak; nozik behinean, baina, lurrean egoten diren habietako arraultzeak edo txorikumeak ere jaten ei<sup>\*</sup> ditu. Ausartenak<sup>\*</sup> baserri ondoetaraingo joaten dira, oilo lokei<sup>\*</sup> txitaren bat harrapatzeko, ahal izanez gero. Hau, ostera,<sup>\*</sup> oso guttitan jazotzen da, erbinudea, gehienbat, basoko janez bizi izaten dalako; eta horregatik oso animalia onuragarritzat<sup>\*</sup> hartu behar dogu.



—Eta zelan<sup>\*</sup> hil leike bera baino animalia haundiago bat, osaba? Hortxe garbitu dauan arratoi hori, guttienez hiru bider handiagoa izan da.

—Erbinudeek arratoiei samako<sup>\*</sup> zainak ebakitzen deutseez haginekin, eta burura odolik joaten ez jakela eta, heriotzea behingoan etortzen jake. Honetan oso bizkorak dira. Horregatik, ba dira, joko hori ez dakiela, erbinudeak pozoia<sup>\*</sup> daukala esaten daben ezjakin batzuk.

—Eta osorik jango ote dau?

—Ez dot uste. Odola zurrupatu, buruko garaunak eta begiak jan besterik ez deutso egingo. Baina, beharbada... sasoi honetan kumeak egiten ditue eta ba leiteke hareei zertxobait eroatea.<sup>\*</sup>

—Zenbat kume egiten ditue?

—Hirutik seiraino. Jaiotzean itsu dira, begiak estalirik daukezalako.

—Eta erbinude guztiak horren ttikiak izaten dira beti?

—Hara! Erbinudea, haundien dala, 18 zm.takoa izaten da, eta buztantxoak 4 zentimetro gehiago ditu. Arrak, ordea, emeak baino askoz ere haundiagoak izaten dira. Batzuetan, handitasunezko diferentziagatik, arrak eta emeak ez dirudie animalia bera direnik.

—Eta kolorez guztiak dira berdinak?

—Bai, erbinudea gainetik gorriska da eta sabelean zuria. Buztantxoaren punta beti da gorria, bizkarraldea lakoxea.

Eskandinabiako erbinudeak, xontonxuriaren antzera, neguan ilez<sup>\*</sup> aldatu egiten dira, gorputz osoa zuri zuria geldituz. Horretara,<sup>\*</sup> eiurretan etsaiek<sup>\*</sup> ikusi gabe ibil daitezke lasai lasai.

—Eta zertzuk dira xontonxuriak, osaba?



—Xontonxuria erbinudearen lehengusu nagusia da, itxuraz eta bizimoduz oso antzekoa, handitxoagoa baina. Luzeraz 27 zentimetro ditu, 10 zm.tako buztan batez. Beronen buztanaren punta, erbinudearena ez bezala, beltza da beti. Europako iparraldeko xontonxuriak neguan ilez aldatzen dira, orduan, buztanaren punta beltza izan ezik, zuri geldituz. Xontonxuriaren larru zuri finaz eta buztantxo beltzez Erdi Haroko erregeen paparreko dotoreak egiten ziren; eta gaur egun ere, euren larrua hartzeko, hainbat hiltzen ditue tranpaz.

—Eta ba dira holakoak Euskal Herrian?

—Xontonxuriak Nafarroako eta Zuberoako Pirinoetan aurki daitezke, Iratiko oihanean<sup>\*</sup> eta Belagoako ibarrean, batez ere. Erbinudea, aldiz,<sup>\*</sup> Euskal Herri osoan bizi da, eta ugari xamarra oraino.

—Zelan deitzen dira erdaraz erbinudea eta xontonxuria?

Lehen esan deutsudanez, euskaraz erbinudeak izen bat baino gehiago dauka: **ogigaztaia**, **anderedderra**, **satanderea**; baina zabalduena **erbinudea** dala esango neuke, Espainolez ere bat baino gehiago dau: **comadreja**, **paniquesa**, **paniquesilla**..., eta frantsesez **belette** (= belet); zientzi izena **Mustela nivalis** da.

Xontonxuriari gaztelaniaz **armiño** eta frantsesez **hermine** (= ermin) esaten jake, nazioarteko izena **Mustela erminea** dalarik. Dantzuzunez,<sup>\*</sup> latinez **mustela** izena eban, oraindik Bizkaiko toki batzuetan, erbinudeari esateko, erabiltzen dan berbera.

TRAUKO

dabe, dute  
daitezke, daitezke  
deutseez, dizkiete  
deutso, dio  
deutsut, dizut  
eban, zuen  
eben, zuten  
ebiltzan, zebiltzan  
eikean, zezakeen

eitekean, zitekeen  
ekusan, ikusten zuen  
eutson, zion  
jake, zaie  
jakezan, zitzaizkien  
jako, zaio  
leike, lezake  
neban, nuen

# Mendigoizale baten gogoetak

Lehen mementotik, industriaren hasiera hartan, finantziatzeko erakunde\* bat jaso zen: Bankua.

«Banco de Bilbao» 1857.ean eraiki zen. «Banco de Vizcaya», berriz, 1901. urtean. Banku hauetan kapital batzuk\* bildu ziren. Kapital horik\*, merkatalgoaren\* bidez, Ameriketara edo Bizkaian bertan eginiko kapitalak ziren. Kapital hauk,\* Bizkaira eurrez\* etortzen ziren atzerriko kapitalekin batu ziren.

Bizkaian zeudèn meatzak zirela kausa, industrializazioa agudo\* aurreratu zen. Gertaera honek, noski, zenbait ondorio ekarri zituen:

- Aberats klase berri bat Estatuaren buruzagitzan sartu zen laster. Aberats klase berri hori burjes handiek osatzen zuten.
- Imigranteak Nafarroa, Aragoi, Leon eta Gaztelatik etorri ziren. (Nafarroak 1860. urtean 299.654 bizilagun zituen; 1920. urtean 329.875. Bizkaia, epe berean, 168.705 bizilagunetatik 409.550 bizilagunetara heldu zen).

XIX. mendearan amaieran, burjes handi horik Estatuaren buruzagitzan finkatu egiten dira laster. Ez dira inoiz, beren historia guztian, demokraziaren aldekoak

izan. Lehen Errepublikan, esate baterako, monarkiarekin eta lurjabe handiekin lotu ziren.

Bizkaian jaiotako klase hura osatzen zutenak ez ziren herrikoiak. Zertarako? Lan gogor eta neketsuetarako langileak lortzeko, merkatu handia eta merkea zuten. Produktuen esportazioa, beren gogarako\* kondizioetan egiten zuten. Eta behar zutèn beste. Klase hura zentralista besterik ez zen. Ekonomiaren aldetik abantail asko eduki zuten.

Gauzak honela izanik, Euskal Herrian ideologia berri bat sortu zen, burjes klase horren kontra.

Gero gerokoak.

Arboledako meatzak ikusi ditugunean, gure pentsamendua atzerantz joan da-historian barrena.

Orain ere pentsatzen gaude. Gure azpian dauden fabrikari artean, zenbat kapital dagokio, aipatu dugun klase horri? Zenbat USArri, zenbat langileari berari?

Bai, Bizkaia aberatsa dela esan daiteke. Baina aberastasun hori noren eskuetan dago?

Bizkaiko lehen meatzak hilik daude. Haien artetik pasatu gara, Ganeraren mendirantz abiatzerakoan. Eguraldi ederra. Nerbion hibaiaren ezker aldean ixilik datza\*. Bihar-etzi, itzarri\* egingen da. Gaurkoz, bego dagoen moduan. Bihar, bere oihua ematerakoan, adi eta prest egon behar.

AIERT

beude, **begoz**  
daude, **dagoz**  
gaude, **gagoz**

zaigu, **jaku**  
zeuden, **egozen**  
zigun, **euskun**



**Banku batetik espero duzun baino askoz gehiago eskaintzen dizugu.**

**Hala ere, oraindik gutti dela uste dugu.**

Hona hemen, emakumearentzat eskaintzen dugun zenbait zerbitzu. Haietarik batzuk ez dira berriak. Baina denek dute berezitasun bat: emakumea haintzat hartzen dutela.

Hau kontuan harturik, Banku barruan bertan bulego batzuk muntatu ditugu, neskak espezializatu batzuen ardurapean daudenak.

Eta dena egin dugu, gure gizartean emakumeak lortu duen aurreramenduak harrotzen gaituelako. Honela, geure oneritzia eta mirespena erakusten diegu bai etxeko andreei eta bai emakume soilei.

Gaurko emakumeak ba daki zer nahi duen eta bere gurariak nola lor ditzakeen. Zerbitzu hauen bidez geure eskerrona erakutsi nahi diogu, eta geure laguntza eskaini.



Cheques Flegato



Cheques de Viajero



Cuentas Corrientes



Domesticación de Divisas



Libretas de Ahorro



Atención a la Mujer



Giros y Transferencias



Operaciones de Crédito



Banco de la Mujer

**Banco de Bilbao** Banku honek emakumearen eskubideak zaintzen ditu

- Azkenean ezkondu egin haiz, ez da? Ez dakik asko nolako inbidia diadan.
- Berrogeitamar urte dituzula? Inork ez luke sinetsiko!
- Ez, zure semea ez da tontoa; baina, ba dakizu, eskolan ez da inoiz adi egoten eta ...
- Asko pozten naiz zu ezagutzeaz.
- Aparkatzea ez da problema, gizona. Ez zaitetz artega,\* hor aurretxoan topatuko duzu lekurik.
- Ez, argalik ez dago, baina lodi esateko moduan ere ez.
- Itsusi edo polit izateak ez du ardura; nortasuna edukiz gero...
- Bai, zure artikulua irakurri nuen. Oso interesgarria, benetan.
- Gaur atzo baino gehiago maite zaitut, baina bihar baino gutiago.




## ELAI S ALAI YURRE

DANTZATOKI GOXOA Igandez ta jai egunez: 6 tatik 10.ra  
Astegunez: 7. tatik 10 ra.

SOINU KOADROFONIKOA

KAFETEGI **AMA LUR** RESTAURANTA

GURUTZEGRAMA (20)



HIEROGLYPHIKOA



1 **Q** oharra

500 Nola ikusi duzu?

EUSKAL SALDA

G U R D O P I L O I  
 A E L I U Z T A R R  
 O R N A R R O D A X  
 U E R N I S P M E I  
 G A S U R A S Y D E  
 A G A T Z I T A L O  
 B E R V I T V I O T  
 I S D K A D I L G U  
 O K E A U L I A M I  
 N I A T R A M A H N

**Ezker aldetik eskuin aldera:** 1. Makila izekia edo ize-tua (artikuluarekin).—2. Suari dario.—3. Bat egina (alderantziz).—4. Bokala. Zuhaitz batzuei datxikien\* onddo\* mota bat, sua pizteko erabiltzen zena. Kontsonantea.—5. Hankak estaltzeko jantzia, emakumeek erabiltzen dutena. Kontsonantea. Ahuntzaren arra (alderantziz).—6. Aitaren anaia edo amaren neba, haien seme-alabekiko. Hirugarren.—7. Kontsonantea. Bazkatu belardian. Bokala.—8. Ukan aditzaren forma.—9. Xori haundia, gorpuk\* jaten dituen.—10. Harrigarria.

**Goitik behera:** 1. Urik gabea.—2. Begirada (alderantziz). Kontsonantea.—3. Eguneroko ogia irabazteko, gizonak egiten duena (alderantziz eta artikuluarekin). Bokala.—4. Kontsonantea. Zein herrialdetan datza\* Aramaio? Kontsonantea.—5. Ukan aditzaren forma (alderantziz). Sukaldeko tresnak gordetzeko haltzaria.\*—6. Lohia. Egun (alderantziz).—7. Garaua, bihia (alderantziz). Ereiten dena (artikuluarekin).—8. Bokala. Kalmatu, trankildu. Kontsonantea.—9. Edaria (pluraleko datiboan eta alderantziz). Kontsonantea.—10. Suari dario. Bokala.—11. Bakoitzari bat.

Goiko koadro horretan zazpi baserri tresna daude, zuzenean jarrita. Aurkituko dituzu? Kontuan hartu behar duzu, eskuinetatik ezkerretara, ezkerretatik eskuinetara, goitik behera, behetik gora edo eta zeharretara, diagonalean ere, egon daitezkeela, bai eta elkarren artean gurutzaturik ere.



HIEROGLYPHIKOAREN ERANTZUNA:

Burrukalari ikusi dut

EUSKAL SILDAREN ERANTZUNA:

Goldea, sega, mailua, sardea, haizurra, igitata, laia.

AZALPENAK. Ezker aldetik eskuin aldera: 1. Zuzia.—2. Gar.—3. Batua.—4. A. Ardagai. B.—5. Gona. R. Aker.—6. Osaba. Heren.—7. R. Larratu. A.—8. Nautzu.—9. Sai.—10. Miragarri.

Goitik behera: 1. Agor.—2. So («so batez ikusi dut»). M.—3. Lana. I.—4. Z. Aramaio. R.—5. Dugu. Arasa.—6. Zatar. Gaur.—7. Gari. Hazia.—8. A. Baretu. R.—9. Urei. R.—10. Ke. I.—11. Bana.

# HIZTEGIA

IMANOL BERRIATUAK

## Ale honetan izartto batekin agertzen diren berbak

ADIN, edade.  
 AGIAN, beharbada, nonbait.  
 AGIN, mana, mandar. (AGINDU, manatu, mandado).  
 AGUDO, arin, laster.  
 ALABAINA, hala ere.  
 ALBAITARI, veterinario.  
 ALDARRIKA, proclamar, vocear. (ALDARRIKATU, proclamar, voceado).  
 ALDIZ, berriz, ordea, ostera.  
 ANGELU, Anglet.  
 ANTZU, estéril.  
 ARAUDI, reglamento.  
 ARAUERA, según.  
 ARE, oraindik, aún, encore.  
 AREAGO, oraindik gehiago.  
 ARETO, sala, salón.  
 ARRUNT, corriente, común, ordinario.  
 ARTEGA, inquietarse, preocuparse. (ARTEGATU, inquietado, preocupado).  
 ASKI, nahiko.  
 ASTEARTE, martitzen.  
 ASUNTO, asunto, gal, materia, sujet.  
 ATURRI, Adur.  
 ATXIKITZE, mantener, guardar.  
 AUSART, atrevido, osado.  
 AXALEKO, superficialito. (AZALEKO, superficial).  
 AXOLA, ardura.  
 BA, bada, pues.  
 BA, si, ya. (Ene ustez, BA partikula beti aditzari loturik idatzi behar dela esaten dutenek, errazki ikus de...kete, esaldi askotan eta bereziki Gernoren honetan, erregela horren akatsa eta beste-aren abantaila).  
 BAILIREN, balira bezala.  
 BATZUK, zenbait. (Batzuek aktibo, batzuk pasibo).  
 BEDEREN, gutlenez, behintzat, behinik behin.  
 BEGIKO, simpático.  
 BEJONDIZUELA, enhorabuena. Bide on (Jainkoak) dizuela.  
 BESTEK, inork, otro. (BESTEEK, los otros).  
 BIDENABAR, bide batez, de paso.  
 BILKURA, biera, reunión.  
 BOKALE, Boucau.  
 BOLADA, unada, temporada.  
 BOZGARRI, pozgarri.  
 BURUTU, realizado, terminado.  
 DAKIKEGU, dakigu nonbait.  
 DAKUSAT, ikusten dut.  
 DAKUSKIGU, ikusten ditugu.  
 DANTZUGU, entzuten dugu.  
 DAROA, darama.  
 DATEKE, da nonbait.  
 DATXIKIE, atxikitzen zaie, les está adherido.  
 DATZA, yace, está, consiste. (Etzan aditzaren forma).  
 DAZAGUGU, ezagutzen dugu.  
 DAZAGUT, ezagutzen dut.  
 DEUS, ezer.  
 DIRATEKE, dira nonbait.  
 DIRAUEINO, dirauen bitartean.  
 DUKEZUE, duzue nonbait.  
 EDUKI, contenido.  
 EGIN, apostar, parier.  
 EGUNEAN BAINO EGUNEAN SORRAGO, cada día más absorto.  
 EI, omen.  
 EKAIN, junio.  
 EKOIZPEN, producción.  
 EMATEKE, eman gabe.  
 ENDELEGU, intelecto.  
 ENPARANTZA, plaza.  
 ENTSEIATU, saiatu, bermatu.  
 ERAGOTZI, evitado, impedido.  
 ERAKUNDE, organismo, institución.  
 ERDIESTE, lortze.  
 ERDIETSI, lortu.  
 EREMU, terreno, campo.  
 ERO, zoro.  
 ERITASUN, gaixotasun.  
 EROAN, eraman.  
 ERORI, jausi.  
 ERRAN, esan.  
 ESAMOLDE, expresión, dicho.  
 ESKUALDE, comarca.  
 ESKUTAN, en manos. (ESKUETAN, en las manos).  
 ETSAI, arerio, enemigo.  
 ETSE, casa. (Ba dago berba hau, baina Euskal Herriko idazle guztiek etxe idazten dute).  
 ETSETO, etxeto, etxetto, etxetxo.  
 EURREZ, erruz, abundantemente. (Gure ustez, euskara batuan Bizkaiko eurrez erabili behar litzateke, eta ez erruz, azken berba honek beste esangura bat ere ba du eta).

EUSTE, sostengatze.  
 EZ BAINA, barik, gabe.  
 EZEIN, ninguno.  
 EZEN EZ, que no.  
 EZKUTUANAGO, ezkutuagoan.  
 FRANTZES, francés. (Etxaparek eta Leizarragak hala idazten zuten, Baina, oker ez banago, oraingo idazle guztiek frantses idazten dute, usadioari eta euskal fonetika jatorri jarraituz (ikus Mitxelenaren «Fonética histórica vasca»)).  
 FROGA, prueba, demostración.  
 FUNTS, fondo, sustancia.  
 GABEZIA, falta.  
 GAINGIROKI, superficialmente.  
 GAURGERO, ya, desde ahora en lo sucesivo.  
 GERA, geldi, quedar. (GERATU, gelditu, quedado).  
 GERTAKARI, gertaera, gertatu den zerbaite. (GERTAKIZUN, gertatzeko den zerbaite).  
 GOGARAKO, gogoko, gustuko.  
 GORABEHERA, a pesar, malgré.  
 GORPU, cadáver, carroña.  
 GUTTIESTE, subestimar.  
 GUTUN, carta, todo escrito corto.  
 HA, hura.  
 HALTZARI, mueble.  
 HAUK, honeek. (Hauk aktibo, hauk pasibo).  
 HEIN, medida, proporción, grado.  
 HERABE, irresoluto, inseguro.  
 HERSTE, hixte.  
 HERTSI, hetsi, hitxi.  
 HEZTE, educar, domar. Diren gauzarik gogorrenak, moldagaitzenak eta hezgaiztenak ere, hezten, beratzen, moldatzen eta eskuataratzen ditu amorioak (Axular, 316).  
 HIRIGINTZA, urbanización, planificación urbana.  
 HITXI, hetsi, hertsu.  
 HOIK, horik, horreek. (Hoiek aktibo, hoik pasibo).  
 HORIK, hoik, horreek. (Horiek aktibo, horik pasibo).  
 HORRETARA, horrela.  
 HOTS, a saber, es decir, esto es.  
 HUGONOTE, Leizarraga.  
 HURA, ha.  
 HURBIL, hur.  
 IDURI DU, ba dirudi.  
 IGORRI, bidali, bidaldu.  
 IGURIKITZE, igurikatze, itzarote.  
 IHARDUKI, ihardun.  
 ILE, ule.  
 INSTALAPEN, instalamendu, instalación.  
 IRAGARTZE, anunciar.  
 IRAGAZTEGI, refinería.  
 IRAULTZA, revolución. (Hitz hau mugatua dela adierazten du azentuak. Bizkaieraz iraultzea esango genuke).  
 ISEKATU, trufatu, burlado.  
 ISKINTXO, inflexión de cintura.  
 ITAUNDU, galdetu.  
 ITXULI, visitita, visita corta. (ITZULI, visita).  
 ITXUROSO, decoroso.  
 ITZARRI, despertado, éveillé. (IRATZARRI, hecho despertar, fait éveiller).  
 ITZEL, eskerka, enorme.  
 IZAKI, izanki, izanik. (Ene ustez, euskara batuan hobe litzateke, azken N galtzen ez duten beste formak erabiltzea: izanki, egonki, emanki, eramanki, iraganki, jakinki, joanki, eta ez izaki, egoki, emaki, cramaki, iragaki, jakiki, joaki, eta abar).  
 IZKUTARAZTE, hacer que se oculte, faire qu'il se cache.

IZOZKUTXA, depósito frigorífico.  
 IZTAI, iztondo, ingele. aine.  
 JABETZE, konturatze, percatarse.  
 JADANIK, ya.  
 JAISTERAKOAN, al ir a bajar. (JAISTEAN, al bajar).  
 JARAMON, kasu.  
 JAUSTE, erortze.  
 KALONJE, canónigo.  
 KAZETARI, periodista, journaliste.  
 KONPROMETITU, engaiatu.  
 KONTRAESANKOR, contradictorio.  
 KOPURU, suma, número total.  
 LANGITE, lan egite.  
 LARUNBAT, zapatu.  
 LAUDIO, ludio.  
 LEGEZ, lez, bezala.  
 LEHERTU, estallado.  
 LEXONA, Lejona. (Euskaltzaindiak besterik erabakitzen ez duen bitartean, Lexona eta ez Leioa idatziko dugu, Arrona, Lemona eta abar idazten dugun bezala).  
 LIBERA, franco.  
 LOKA, kloka, koloka, kolka, clueca, poule qui glousse.  
 LOR, buruhauste.  
 MAISEAGARRI, kritika irri.  
 MAIZ, sarri.  
 MEATZA, mina.  
 MERKATALGO, comercio.  
 MINTZO IZAN, mintza, berba egin.  
 NABARI, evidente, notorio, patente.  
 NABARIRO, nabariki, evidentemente, patentemente.  
 NEHOR, inor.  
 OIHAN, baso.  
 OIHUKA, proclamar, vocear. (OIHUKATU, proclamado, voceado).  
 OLA, fabrika.  
 ONDDO, hongo, champignon.  
 ONURAGARRI, probetxagarri.  
 ORDUTAN, en tiempo, en horas. (ORDUETAN, en las horas).  
 ORO HAR, en conjunto.  
 OSATU, sendatu.  
 OSTEKUN, eguen.  
 OSTERA, aldiz, berriz, ordea.  
 SALBAIA, salvaje.  
 SAMA, lepo, cuello, cou.  
 SARTZEKE, sartu gabe.  
 SEMETO, seme nagusi, primogénito.  
 SETAKERIA, obstinación, terquedad.  
 SINATURA, firma, signature.  
 SOR, absorto.  
 TALAIA, atalaya.  
 TERNOSE, Tarnos.  
 TRAPAGA, San Salvador del Valle.  
 TRUFA, burla.  
 UKAN, izan. (Ukan aktibo, izan pasibo).  
 URRATS, pauso.  
 UZTAIL, julio.  
 XARMA, encanto.  
 XERTO, vacuna, vaccín.  
 XURGATZE, mamar, absorber.  
 ZELAN, nola.  
 ZEREN, ze, pues.  
 ZIGOINA, cigüeña.  
 ZILEGI, licito.  
 ZIRATEKEEN, ziren nonbait, izango ziren.



## MENCHACA

Estalkiak, Itzalkiak, Ikurriñak, Itxas tresnak, Igeritekoak, Uretako Jan-tziak, Alokatzeko Itzalkiak.

Zuzenbideak: Posta, 700-Urrutizkin, 245574-Telegrafoa, MENURI  
 Muelle de Uribitarte, 15  
 BILBO - 1

# IKASTOLAK DIRELA ETA

## 1. Nahi ez dudana ikastola

a) Zenbait ikastolatan, Junta Zuzendaria, pedagogi arloan ezer ez dakien jendeak osaturik dago. Hau da, pedagogian analfabeto den jendeak zuzentzen du ikastola. Lantegi batean agintari eta zuzendari denak, uste du ikastolan ere agin\* eta zuzen dezakeela.

Horrelako eskutan\* dagoen ikastola, horixe izango da, ikasteko ola\* bat, ikastegi bat. Lantegian agintzen duenak, uste du berdin egin dezakeela ikastegian ere. Lehenean, lan egin eraziz. Bigarrenean, ikas eraziz. Horrelako ikastegi batetan, haurrak ikasi bai, ikasiko du; baina hezi ez da egingo haurra, nahiz eta euskaraz ikasi.

Horrelako ikastolarik ez dut nahi.

b) Irakasle funtzionarioen eskutan dagoen ikastola ere ez dut nahi. Bi modutan izan daiteke funtzionario: norberak hala nahi duelako eta bestek\* hala agintzen diolako. Bietarik ematen da praktikan. Irakasle batzuentzat, dirua irabazteko toki bat besterik ez da ikastola. Lantegia baino toki hobea. Bestalde, pedagogiaz jantzia egon beharrean agintez jantzia dagoen zuzendaritzapean, funtzionario izatera behartzen da irakaslea. Ikastola enpresa bat da, eta irakasleak hango langileak. Ikastola-enpresa hori ez dut nahi.

c) Pedagogia ordenazaleaz jokatzeko duen ikastola. Hau da, haurren nortasuna lantzen baino haurren buruak betetzen gehiago saiatzen den ikastola. Ikas ordutan,\* jolas ordutan, hitz ordutan, eskailerak jaisterakoan\* eta igotzerakoan, autobusean sartzekoan, ordena, ordena, ordena (isilik! zuzen! bata bestearen atzetik! eskuak atzean! burua tente! eta abar eta abar): ordena, balore nagusi duen ikastola. Haurrari, libreki espresatzen, sortzen, kritika egiten, mugitzen uzten ez dion ikastola. Ordena ez dut baztertzen; baina gainetik eta azpitik ordenaz jantziriko ikastola hori ez dut nahi.

d) «Ikastola neutrala nahi dugu, ez eskuinekoa eta ez ezkerrekoa. Euskalduna izan dadila, eta kito», horrela pentsatzen duen jende eskuindar eta burgesaren ikastola. Gizarte finkatu eta konkretu baten barnean (eta ez ilargian) dagoen eskola bat neutrala izan dadin saiatzen dena, gizarte burgesaren alde ari da, derrigorrez. Oraingo ordena finkatua ez da neutrala. Hori itsuak ere bada. Guraso neutralzaleen eskola neutralik ez dut nahi.

e) Euskararik eta euskara baturik ez dakiten eta ikasi nahi ez duten irakasleen eskutan dagoen ikastola. Euskara jakin ez, eta, hala ere, egunean bost minutu ere ikasten ahalegintzen ez diren irakasleen ikastola. Esaldi bat euskaraz okerrik gabe idazteko gauza ez diren irakasleen ikastola. Ikastola hori ez dut nahi.

f) Ikastola batzuetako agintedunek, Erdi Haroko garaietara itzuliz edo, sorginak eta herejeak besterik ez dute ikusten irakasleen artean eta hauen inguruan. Sorgin eta hereje horik\* salatu, urrutiratu eta erre artean, ez dute bakerik.

Gurutzada santu bat organizatu nahi dute, euskal eta katoliko ortodoxiaren alde. Talde horien eskutan dagoen ikastolarik ez dut nahi.

g) Langile soila Junta Zuzendarikoa ezin daitekeela izan uste duen ikastolarik ez dut nahi. Pedagogi problema zuzendariaren eskutan utzi eta, bileretan diru problema besterik erabiltzen ez duen ikastola ez dut nahi. Laguntzaileari (herriari) dirua besterik eskatzen ez dion ikastola ere ez.

Ikastola guzti hauk\* ez ditut nahi, ez pertsonarik eta ez herririk egiten ez dutelako. Desigileak direlako, eta ez egileak. Talde zapaltzailearen indarrari eusteko\* direlako. Langile zapalketaren harma bat direlako.

## 2. Nik nahi dudana ikastola

Junta Zuzendaria, heziketaz, pedagogiaz eta abarrez zerbait irakurri duen edo guttienez horretaz zerbait baino gehiago arduratzen den jendeaz eraturik dagoen ikastola.

Irakasleek nortasunez joka dezaketen ikastola.

E.G.B.k eskatzen duenaz gainera, haurra sortzaile, kritikagile, responsable, libre egiten saiatuko den ikastola. Ordena guztia baztertuko ez duena, baina ordenaren menpe eroriko\* ez dena.

Gizarteko ordena zapaltzailea irauli nahi duen ikastola. Haurrari, gaurko gizarteak erakusten dizkion interes egoista, materialista eta zapaltzaileen ordez, interes justizigileak, anaiartegileak eta askatzaileak presentatuz. Haurrari oraingo eta hemengo egoera erreala begien bistan ipiniko dion ikastola.

Euskaraz analfabeto ez diren irakasleen eskutan dagoen ikastola.

Hitz batez, ez dut nahi ikastola diktadore, ordenazale, neutral, funtzionario, burges eta erdalunik.

Nahi dut ikastola demokratikoa, transformaziozalea, konprometitua,\* herriarena, euskalduna.

Eta ez dut perfekziorik eskatzen. Ba dakit non eta noiz bizi garen eta zein diren gure posibilitateak. Linea bat eskatzen dut, hari bat, bide bat, direktzio bat. Eta horretarako, nahi ez ditudan ikastolak ez ditut erre eta kizkali nahi, baina bai kritikatu, egiten duten zapalketa salatu eta beste bide batetik eramaten saiatu.

(Aurtitz delako batek ZERUKO ARGIAN idatzi du —nik ere bai erantzun hari, baina alferrik, ZERUKO ARGIAko ateak hitxita\* aurkitu baititut—, ikastolak erlatiboak direla esan dudalako, niretzat dena berdin dela, bai erdal eskolak eta bai ikastolak. Eta niri bost axola\* zaidala euskara, euskal gauzak eta Euskal Herria. Jakin nahi nuke non ikasi duen Aurtitz delako horrek hain logika harregarria, eta non eskuratu duen Euskaltasun Definitzaile Haundiaren karneta).

EUSEBIO OSA

dezake, daike,  
dezakete, daikee  
dio, deutso  
zait, jat